



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko ABENDUAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko abenduaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Onintza Gorostidi Murua
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - a. **2018ko abenduaren 4an egindako ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Irabazi xederik gabeko erakundeek eginiko diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada.**
5. **M.A.U. andreak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
6. **Tolomendi eta Larraulgo udalaren arteko hitzarmenaren onespena, IKT zerbitzua, hala bada.**
7. **M.L.O. andreak eginiko obra baimena eskaera, hala bada.**
8. **J.M.B.S. jaunak eginiko obra baimena eskaera, hala bada.**
9. **Oporrak bakean 2018, kontuen zuriketaren onespena, hala bada**
10. **Beste batzuk.**
11. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2018ko abenduaren 4ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

53/2018 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 30ekoa, 03/2018 kreditu aldaketari hasiera ematea, ebazten duena.

54/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 5ekoa, Maderas Garmendia S.L-ri, J.I.G. partzelako pinuak ateratzeko, herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

55/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 13koa, Joyn mobiliario-ri liburutegirako hainbat altzari erosteko onespena, ebazten duena.

56/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 19koa, Alkizako udaleko 2018 urteko bigarrenengo sei hilabeteko zabor tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

57/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 20koa, L.M.A. jaunak jarritako abala bueltatzea, ebazten duena.

58/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 5ekoa, Ordenagailuarentzat antivirus-a, Panda enpresari esleitzea, ebazten duena.

59/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 27koa, Fagus webgunea berritzea OBBTKN enpresari esleitzea, ebazten duena.

60/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 27koa, Fibrozementuzko plakak kentzea, Desnor medio Ambiente enpresari esleitzea, ebazten duena.

61/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 27koa, ostaturako hainbat tresneria



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

erostea onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ANDONI LARRAÑAGA	605,00
KUKU-LORE	44,24
EBA ERKIZIA	1.418,16
TOLOMENDI	155,55
SOLRED	64,00
ARGITU	161,23
ACSOL	450,82
HERRI OSTATUA	34,00
LYRECO	491,33
MOVISTAR	75,12
NORTEGAS	11,28
NORTEGAS	11,28
NORTEGAS	32,66
ACSOL	99,60
ACSOL	137,93
ACSOL	129,26
ACSOL	249,49
ACSOL	57,39
ACSOL	35,13
ACSOL	77,66
ACSOL	169,36
ACSOL	45,27
IBERDROLA	44,52
EUSKALTEL	98,74
CALPARSORO	120,84
BIDATEK	1.677,06
KUKU-LORE	12,00
MOVISTAR	169,46
MOVISTAR	79,25
HERRI OSTATUA	1.403,60
HEGOTIK	61,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

GILDER	7.018,00
GALTZAUNDI	550,00
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	281,25
MARTA GARCIA	400,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **16.471,48** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

IRABAZI XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAAREN ESAKERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2018 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek Alkizako Udaletxean aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaerak.

Ikusirik 2018 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Irabazi asmorik gabeko ondorengo erakundeei diru-laguntza esleitzea:

- Nafarroa Oinez 2018. 150,00 euro.
- Herri Urrats 2018 150,00 euro.
- Tolosaldea Sahararekin Elkarte 100,00 euro

GUZTIRA 400,00 euro

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

M.A.U. ANDREAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik M.A.U. andreak eginiko eskaera, non Tolosako Aitzol Euskaltegian 2018/2019 ikasturtean, euskarako ikastaro bat egin behar duela,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1. Euskara eskakizuna ateratzeko. Ikastaroaren kostua 277, eurotako izanik, aipaturiko ikastaroa egiteko Alkizako Udalarari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesua bultzatu nahi duela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- M.A.U. andreak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko, hau da, Tolosako Aitzol Euskaltegian egin behar duen euskara ikastarorako 277,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- M.A.U. andreaki jakinaraztea, diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo dela:

- 1. Ordainketa: Matrikularen % 50-a, matrikula eta ordainagiria Udaletxe honetan aurkezten dutenean.
- 2. Ordainketa: Ikastaroa amaitzean, gelditzen den % 50-a, Udaletxe honetan asistentzi ziurtagiria aurkezten duenean. Ordainketa hau burutzeko gutxieneko asistentzia % 85a izan beharko da.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri M.A.U. andreaki ematea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOMENDI ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkarteak informazio eta komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen dutela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udalak erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Alkizako Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena onestea, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta Aholkularitza lanaren sustapenererako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmen du aipaturiko lankidetzaz hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

M.L.O. ANDREAK EGINIKO OBRA BAIMENA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik M.L.O. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Aitzetagai baserriaren mandioako oholak aldatu eta bi leiho zabaltzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2018ko abenduaren 24ean Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO “AITZETAGAI” BASERRIAREN MANDIOKO OHOLA ALDATU ETA BI LEIHO ZABALTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

M.L.O.U. andreak, Alkizako “Aitzetagai” baserriaren atzeko fatxadan bi leiho zabaldu eta mandioako oholak aldatzeko obra baimena eskatzen du, lanen aurrekontua, gaur egungo argazkia, eta proposatutako egoera adierazten duen moldaketa bat aurkeztzen dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, baserriaren atzealdean bi leiho ateratzeaz gain, mandioako ohol zaharra kendu, dauden gapirioak nibelatu eta oholak berri jarri nahi da, eraikinaren egitura aldatu gabe. 1,20 x 1,30 m neurriko irekitzen diren bi leiho berriek, azpiko baoen ardatza jarraitzen dute. Lan hauen aurrekontua 6.690 €-koa da (BEZ-a gabe).

Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikulua arabera, egun dauden mota guzietako eraikinen antolaketa eta kanpoaldeko itxuraren aldaketak aurretiazko lizentziari loturik egon behar dira.

Aitzetagai baserria Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarran kokaturik dago. Baserria, Alkizako arau subsidiarioen eraikinen katalogoan sartua dago.

Alkizako lur ez-hiritargarriko aldatutako araudiaren arabera, aurretik hor dauden baserriak kontsolidatuak gelditzen dira, barne eta kanpo moldaketak onartzen direlarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Leihoen irekiera argiztapenaren gehiagotze bat izanik, Aitzetagai baserriaren bizigarritasun baldintzen hobekuntza bat bezala uler daiteke eta, eraikinaren kanpo itxurarekin eta azpiko leihoen ardatzarekin bat egiten denez, lanak baimengarriak direla informatzen dut.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- M.L.O.U. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, Alkizako Aitzetagai baserriaren mandioko ohola aldatu eta bi leiho zabaltzeko baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jartzen duenari baldintzaturik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

J.M.B.S. JAUNAK EIGNIKO OBRA BAIMENA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik J.M.B.S. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Arrate Goiena lursailean dagoen borda aztarnen berreraikitze obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak, 2018ko abenduaren 24ean eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO “ARRATE GOIENA” LURSAILEAN DAGOEN BORDA AZTARNEN BERRERAIKITZE ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA

El Sr. J.M.B.S., solicita licencia de obras para la reconstrucción de de una borda derruida situada en la parcela denominada Arrate-Goyena de Alkiza, para lo que presenta un breve escrito explicativo y copia del registro de la Propiedad. Analizada la documentación anterior, señalo lo siguiente;



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

J.M. B. expone que es propietario de un terreno en donde se encuentra enclavada una borda, "que está medio derruida pero conserva los materiales que sirvieron para su construcción en sus lindes".

El escrito no incluye ni fotografías ni descripción de los restos (medidas, alturas, composición de los muros, etc..). Tampoco hay planos del estado actual y de la propuesta, ni presupuesto de los trabajos de reconstrucción.

Antecedentes;

- En abril de 1997, el Sr B. realizó consulta urbanística sobre la posibilidad de construcción de una borda de 12mx5m en la que se le informó **DESFAVORABLEMENTE**.
- En septiembre del mismo año, y adjuntando una copia de la escritura de la parcela Arrate-Goyena, solicita licencia para arreglar la borda existente, a lo que se le informa **DESFAVORABLEMENTE**.
- En junio de 2017, J.M.B. solicita cita con la técnico municipal abajo firmante para informarse sobre las opciones de construcción (o reconstrucción) de una borda en cualquiera de las parcelas de las que es propietario. Aporta fotografías de los restos de la borda en cuestión. Se le vuelve a informar **DESFAVORABLEMENTE** a la opción de reconstrucción de la borda.
- En julio de 2018, y en consulta telefónica con el Sr. B., se vuelven a detallar las razones del sentido **NEGATIVO** a su solicitud.

La Ley 2/2006 del Suelo y Urbanismo del País Vasco, en su artículo 30, determina que sólo será autorizable la reconstrucción de los caseríos que mantengan una estructura edificada que permita identificarlos como tales. **En ningún caso podrán ser objeto de reconstrucción los restos de muros de edificaciones que no alcancen la cumbra de las primitivas** y, en general, cuantos restos no permitan conocer la planta general del inmueble original ni permitan reconocer su volumetría original.

La parcela Arrate-Goyena está situada en categoría de "**Suelo no urbanizable de Especial Protección**" de Alkiza, dentro del Área Ernio-Gatzume (Lugar de Importancia Comunitaria de la Red Europea 2000), donde quedan **expresamente prohibidos** los usos recreativos intensivos, los invernaderos, las industrias agrarias, las vías de transporte, actividades extractivas, la agricultura, instalaciones técnicas de carácter no lineal tipo A, cualquier uso o actividad residencial permanente, cualquier edificación para ganado estabulado, escombreras, vertederos de residuos e instalaciones peligrosas.

Los restos de la borda situada en la parcela Arrate-Goyena no permiten, por mucho, reconocer su volumetría original. Además están situados en suelo de Especial Protección donde está totalmente prohibido cualquier uso o actividad residencial permanente o cualquier edificación para ganado.

Siendo esto así, se informa desfavorablemente a la solicitud de reconstrucción presentada."

Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA.- J.M.B.S. jaunak eginiko obra baimena eskaera **UKATZEA**, Udal Aholkulari Teknikoak, 2018ko abenduaren 26an eginiko txostenean jasotako arrazoiak direla eta.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri J.M.B.S. jaunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
OPORRAK BAKEAN 2018, KONTUEN ZURIKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, 2018ko maiatzaren 29an egindako Udalbatzarrean onestu zela, Oporrak bakean programarentzat 1.900 eurotako diru-laguntza bat onartzea. Alkizako familia batek haur saharai bat hartzeko eskaera egin zuenez, honek suposatuko zizkion gastuak finantzatzen laguntzeko.

Ikusirik, haur saharai-aren bidaiaren gastua ordaindu zela bere kopurua 685 euro izanik.

Ikusirik Tolosako udaletxetik igorritako idatzia, non Saharako haurren harrerako Oporrak Bakean 2018 programan hainbat herrik parte hartu dutela eta Tolosako Udala programaren kudeaketaz arduratu denez, Alkizako Udalari 979,24 eurotako ekarpena egin dadila eskatzen dutelarik, horretarako gastu guztien zurigarriak aurkeztu dute.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oporrak Bakean 2018 programaren kostua onestea, hau da 979,24 euro.

BIGARRENA: 979,24 eurotako gastua onestea eta Tolosako Udalari aipaturiko diru kopurua ordaintzeko agindua ematea, 2018ko udal aurrekontuetako 480.230.00.01 partidaren kontuara.

HAMARGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

**10.1. NATURTZAINDIA IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK
AURKEZTURIKO FAKTUREN ONESPENA, HALA BADA**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Alkizako Udala eta Naturtzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, azken honek, Hernio Gazume KBE barneko udal sailetan udalak lortutako EJ-ko laguntzen kudeaketa egiteko.

Ikusirik, 2018 urtean zehar Naturtzaindiak egin dituela hainbat lan, Eusko Jaurlaritzak Hernio Gazume KBE barneko udal sailetan emandako diru-laguntzak justifikatzeko. Horretarako Naturtzaindiak Alkizako udalerrian eginiko lanen fakturak aurkeztu ditu.

Idazkari-kontuhartzaileak, udalbatzarkideei adierazten die, hitzarmena onestu zen momentuan aipatu zuen modura, onestutako hitzarmenaren ordean, kontratu legea jarraitu behar zela gai honekin. Beraz, faktura hauek onartzean, Idazkari-kontuhartzaileak ohartarazten du legeak finkatzen dituen irizpideak ez direla jarraitzen. Batzarkideak ohartarazpen honen berri hartzen dutelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2018/02 faktura onestu. Fakturaren zenbatekoa 18.029,00 euro izanik.

BIGARRENGOA: 18.029,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. 2018ko udal aurrekontuetako 629.172.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2018/03 faktura onestu. Fakturaren zenbatekoa 13.915,00 euro izanik.

LAUGARRENGOA: 13.915,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. 2018ko udal aurrekontuetako 629.172.00.01 partidaren kargura.

BOSTGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2018/04 faktura onestu. Fakturaren zenbatekoa 15.004,00 euro izanik.

SEIGARRENGOA: 15.004,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. 2018ko udal aurrekontuetako 629.172.00.01 partidaren kargura.

ZAZPIGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2018/05 faktura onestu. Fakturaren zenbatekoa 17.545,00 euro izanik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ZORTZIGARRENGOA: 17.545,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. 2018ko udal aurrekontuetako 629.172.00.01 partidaren kargura.

BEDERATZIGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2018/06 faktura onestu. Fakturaren zenbatekoa 15.507,00 euro izanik.

HAMARGARRENGOA: 15.507,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. 2018ko udal aurrekontuetako 629.172.00.01 partidaren kargura.

HAMAIKAGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2018/07 faktura onestu. Fakturaren zenbatekoa 19.000,00 euro izanik.

HAMABIGARRENGOA: 19.000,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. 2018ko udal aurrekontuetako 629.172.00.01 partidaren kargura.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

11.1. AIZTONDO BAILARAKO PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MUGIMENDUAK AURKEZTURIKO MANIFESTUAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo bailarako presoek eskubideen aldeko mugimenduak aurkezturiko manifestua, non ondorengoak dioen:

“Pasa den apirilaren 18an Arabako Batzar Nagusiak presoek urrunketa politikarekiko ezadostasuna azaltzen zuen mozioa onartu zuen.

Hitzarmen honekin Euskal Autonomi Erkidegoko hiru Batzar Nagusien akordiora iristen gara, 2016ko abenduaren 14ean Gipuzkoan eta 2017ko ekainaren 7an Bizkaian onartutako ondoren.

Egun berean, aho batez onetsi zuten Euskal Autonomi Erkidegoko sindikatuek : ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK, Steilas, EHNE, Hiru eta Etxalde.

Ondorioz, udalbatzak honakoa onartzea dugu helburu:

Lege Orokorrean askatasuna kentzeko zigorrak betetzean deserrotzea saihesteko ezarritakoa kontuan izanik, zigor horien bergizarteratze printzipioen arabera, adierazten dute ez daudela ados urruntze espetxe-politikarekin. Alde



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

horretatik, ETaren indarkeriaren behin betiko etenak irekitako garai berriaren barruan, uste dute espetxe-politika berri bat behar dela, hain zuzen ere presoak zigorrak gizarte- eta familia-erroak dituen lekutik urrun betetzea saihesten duen politika bat, zeinak erraztuko baitu bere senideekin harremana izatea, bere seme-alaba adingabeen ongizatera begira eta horiek gurasoekin egoteko duten eskubidearen alde.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Aiztondo bailarako presoan eskubideen aldeko mugimenduak aurkezturiko manifestua bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.